



JANTOKI ZERBITZUA

2022/2023 ikasturtean jantoki zerbitzua erabiliko duten ikasle guztiak ondorengo alta galdetegia bete beharko dute ikasturtea hasi baino lehen:

izena eman



JANTOKIKO LAGUNTZAILE TXANDA

Jantokia darabilten 4 urtetik DBH4 arteko ikasleen familia guztiak jantokian laguntzeko 16 eguneko txanda burutu beharra dute edo bestela dagokion kuota ordaindu, 166,78€ (bi zatitan ordaintzekoa, abenduan eta otsailean). Familia guztiak egiten duten aukeraketa adierazi beharko dute ikaslearen alta komunikatzean.

Ikastolak txanda sistemaren funtzionamendua antolatzen duen arautegi hau ezarri du guztion artean ikasleek jasotzen duten zerbitzua hobetu dezagun:

1. XEDEA. Txandaren xedea jantokiko garbiketa lanetan laguntzea da.

2. EUSKARA. Jantoki zerbitzuaren euskara hutsezko funtzionamendua berma dezagun, txandan parte hartuko duen pertsonak euskarazko ahozko komunikazioa bermatzeko behar adinako konpromisoa erakutsi beharko du.

3. EGUTEGIA. Txandarako ezarritako egun guztiak bete beharko dira, beti ere txanda egutegian ezarritako datatan. Txanda egunik bete gabe utziz gero, kuotaren zati proportzionala ordaindu beharko da. Txandaren egun kopurua urteroko plangintza antolatzean zehaztuko da; printzipioz 16 egun dira.

4. ORDUTEGIA. Txandaren ordutegia osorik bete beharko da egunero: 12:15etik 15:00etara.

5. BAZKARIA. Txandako partaideek ez dute jantokian bazkalduko.

6. AHAIDETASUNA. Txandako partaideak txanda betebeharra eragin duen ikaslearen senitartekoa behar du izan.

7. IZEN EMATEA. Ikasturte hasieran egindako aukeraketa ezin izango da aldatu. Plangintzak ahalbidetuz gero, ikasturtean zehar sortutako alta berriei txanda sisteman parte hartzeko aukera eskainiko zaie.

8. ELIKAGAIEN MANIPULATZAILER KARNETA. Jantokiko auzolanean parte hartuko duten pertsonak elikagaien manipulatzailer karneta beharko dute. On-line eskuratzea dago ondorengo web gunean: hazia.net.